

GIDABAIMENAK INDARRA GALTZEA:

Gidari batek esleituta zeuzkan puntu guztiak galdu dituela egiaztatzen denean, 15 eguneko epean egin beharke zaio galera horren jakinarazpena. Gidariak ezin izango du baimen edo lizentzia berririk lortu, jakinarazpena egin zaionetik 6 hilabete igaro arte; gidari profesionalen kasuan, berriz, **3 hilabete** igaro arte.

Baimen berri hori lortu eta hurrengo 3 urteetan baimena indarrak gabe utziko balitz puntu guztiak berriro galdu direlako, baimen berri bat lortzeko epea 12 hilabetekoa izango da, gidari profesionalen kasuan izan ezik (kasu horretan, epea 6 hilabetekoa izango da).

Zehapena irmo egin denetik urtebetera ez bada zehapen hori eragin duen arau-haustearen idatzoharra egin, ez da punturik kenduko.

PUNTUAK BERRESKURATZEKO IKASTAROEN IRAUPENA ETA BERRESKURATU BEHARREKO PUNTU KOPURUA:**BAIMENAK BERRESKURATZEKO IKASTAROA:**

Adierazitako 3 edo 6 hilabeteak igaro ondoren, bide-berreziketako eta sentsibilizazioko 20 orduko ikastaro bat egin eta gainditu ondoren, ezagutzen eta jarrerren azterketa ofiziala egingo da Trafikoko Probintzia Buruzagitzan. Azterketa gaindituz gero baimena berreskuratuko da 8 puntuko saldoarekin.

PUNTUAK PARTZIALKI BERRESKURATZEKO IKASTAROA:

Puntuak partzialki berreskuratzeko aukera egongo da, **gehienez ere 4 puntu bi urtean behin**, (edo urtean behin gidari profesionalak), gutxienez 10 orduko iraupena duen bide-berreziketako ikastaroa egin eta gaindituta.

6 PUNTU KENTZEA DAKARTEN ARAU-HAUSTEAK:

- Honela gidatzea:
 - Arnasteen botatako airean 0,50 mg/l-
tik gorako alkohol-tasa gaindituz (profesionalen kasuan eta bi urte baino gutxiagoko antzinatasuna duen baimenaren titularren kasuan, 0,30 mg/l).
 - Organismoan drogak edukita.
 - Ausarkeriaz gidatzea, ezarritakoaren kontrako noranzkoaren zirkulatzea edo baimendu gabeko lasterketa edo lehiaketetan parte hartzea.
 - Radarrak edo zinemometroak inhibitzeko gailuak edo zirkulazioa zaintzeko sistemek zuzen funtzionatzea eragozteko beste edozein mekanismo instalatuta dituzten ibilgailuak.
- Lurreko garraioari buruzko legerian ezarritako gidaldiak % 50 baino gehiago

luzatzea edo atsedenaldiak % 50 baino gehiago laburtzea.

- Gidariak takografoaren edo abiadura-mugagailuaren funtzionamendu egokia eragozten duten elementuak ipintzen edo funtzionamenduan jartzen parte hartzea edo laguntzea.
- **Gidatu bitartean mugikorrek gailuak eskuz erabiltzea.**
- Organismoan alkohola edo drogak detektatzeko probak egiteko betebeharra ez betetzea.
- **Bidera edo bide-inguruetara suteak edo istripuak sor ditzaketen gauzak botatzea.**
- Xirrindulariak arriskuan jarritz edo oztopatuz **edo 1,5 metroko gutxieneko tartea utzi gabe aurreratzea.**